

IRABAZI-ITURRIAK

Proiektua aurrera eramateko behar-beharrezkoak izango dira diru sarrerak. Gure diru kantitate ia dena salmentatik etorriko da, eta badakigu hasieran produktu hau saltzea kostatu egingo zaigula, baina azkenean uste dugu denbora bat pasa ondoren ia denda guztietan egongo dela, baita sozietate zein etxe askotan ere.

Guk kalkulatu dugu, bakoitzak 1.590€ jarri beharko ditugula. Hasiera batean diru hori berreskuratzea kostatu egingo zaigu baino denboraren poderioz diru hori berreskuratuko dugu. Eta ondoren diru gutxiago edo ez dugu dirurik jarri beharko, izan ere, irabaziak produktua egiten jarraitzeko izango dira etorkizunean irabaziak askoz ere handiagoak izateko.

Guk bi irabazi iturri edukiko ditugu, salmenta eta aparatuak konpotzea, baina diru kantitate gehien aterako dugun lekua, salmentatik izango da. Gainera, pentsatu dugu herriko jendeari merkeago saltzea, uste dugulako horrela erosle gehiago edukiko ditugula. Eta, jendeak ikusiko balu erosle asko daudela, geroz eta gehiagok pentsatuko lukete aterki lehorgailua erostea. Beraz, bertako jendeari 100€-tan saltzea erabaki dugu eta kanpokoei-150€ tan

Beraz guk pentsatzen dugu, herriko dendatan 30 ontzi salduko ditugula, eta orduan 3.000€ aterako ditugula hilabeteetan eta 36.000€ urtean.

Horretaz gain, Ferrokey edo eta AOLQ bezelako web guneei ordaindu egin behar diegu 500€ hilabeteetan baina guk uste dugu bertako plataforman hilabeteetan 40 aterki ontzi salduko ditugula, hau da, 54.000€ lortuko ditugula urtean. Horretaz gain, Amazon plataforman egongo da, eta bertan beste 40 salduko ditugula aurreikusten dugu, beraz urtean beste 54.000€ aterako ditugula uste dugu.

Beraz, guk uste dugu 15.000€ euro aterako ditugula hilabeteetan gutxi gora-behera, orduan kalkuluak eginda, urtean 180.000€ irabaziko ditugu. Baina diru sarrerak kontuan hartuta diru kantitate hori ez da izango urtean irabaziko duguna, izan ere kostuak ordaindu behar ditugu, 156.876€ hain zuzen ere. Horregatik guk irabaziko dugun diru libre kantitatea 23.124€ izango dira.